

ANJEL LERTXUNDI

Deskribapena: Kike, Anjel Lertxundirekin Zarautzeko malekoian elkarrizketan ageri da.

Kike: “Anjel, saio honetan bertan, askotan entzun dugu euskarak ez duela adierazkortasunik.”

Anjel: “Hizkuntza batin, edozein dalarik ere hizkuntza, adierazkortasunik ez zaio falta. Faltako zaio, urtetan eta urtetan hiztunok ez erabili izanaren ondorioa, baina ez beragaitik adierazkortasun hori ez duelako. Izatekotan ere, gu gera hizkuntzari behar bezalako etekina ateratzen ez diogunak. Ondo asko demostratuta dago, hizkuntzaren hainbat alorretan, literaturarenean, itzulpenarenean, hitz egiterakoan, bertsolaritzan, hainbat eta hainbat alorretan, garbi asko adierazita dago adierazkortasun hori garbi-garbia duela eta ematen duela baldin eta hiztun edo pertsona egoki batzuk baldin badaude etekin hori ateratzeko.”

Kike: “Eta zer ez diogu ateratzen, esate baterako?”

Anjel: “Gatza eta piperraren bila joaten gera gaztelaniara, bai gure eguneroko jardunean eta baita ere jardun jasoagoetan. Hizkuntzak nolabait gauzak esateko garaian behar duenean indarra, behar duenean gatza, ez dakigu behar bezela ateratzen. Bertsolari askok dakiten hori guk ez degu egiten, ba, erosoagoa zaigulako ia hainbat elementu ezagunak ditugunak beste hizkuntzan, haiek baliatzea ba errepikapenaren errepikapenez eta entzunaren entzunez haiek buruan sartuagoak ditugulako gure propioak baino. Ze hor badago arazo haundi bat, eta arazo hori da belarriarena. Belarriak erdera askoz ere gehiago jasotzen du egunean zehar euskera baino. Horren eraginez, hainbat eta hainbat erdaldun ateratzen zaigu hizketarakoan batez ere.”

Kike: “Eta hiztunok egoera honen aurrean ze beste jarrera hartu beharko genuke?”

Anjel: “Nik uste gizarteak e, oro har ikusi beharko lukeela eta hezkuntzaren munduak bereiziki, hizkuntzak bi, lau bide bakarrik dituela: entzun, esan, idatzi eta irakurri. Eta ze garrantzia duen belarriak, ze garrantzi duen esateak. Ahozkotasunak ze garrantzi duen eta e, hezkuntza sisteman, edo familian bertan ez da hainbeste lantzen hitz egitearen kontua. Irudipena det, eta esango det, osea hola, modu bakar batean, iraultza izugarri bat egin beharra dagoela eskolan ahozkotasunaren alde eta ez noski idatziaren kaltetan baina pentsatuz, idatziak izango duela bere garaia, bai batxilergoan bai gero unibertsitatean baina gainera bere garai hori askoz ere aberatsagoa izango duela baldin eta finkatu baldin badugu ahozkotasuna. Eta finkatzen baldin badugu ahozkotasuna ia irabazi dugu hiztunak.”